

Lehen ipuinetatik...

Sei urtetik beherako gaztetxoek artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna pizteko kanpaina abiatu dute Galtzagorri elkarteak eta Donostia Kulturak, Alde Zaharreko eta Erdiguneko ikastetxeetan. "Bularretik Mintzora" ekimena haur, guraso eta irakasleei dago zuzenduta.

'Kontextu erakargarri bat sortu nahi dugu euskarazko irakurketaren alde'. Hala laburtu zuen atzo Denis Itxaso Donostiako Kultura zinegotziak Bularretik Mintzora kanpainaren helburua. Sei urtetik beherako umei zuzenduta dago ekimena eta, era berean, haiekin erlazio zuzena duten guraso eta irakasleei. Guztien artean, umeengan hasieratik euskaraz irakur-tzeko ohitura piztu nahi dute.

Ekimena 2007. urtean jarri zuten abian Galtzagorri elkartekoek Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin EAEko herri batzuetan, eta orain hiriburura heldu da Donostia Kulturaren laguntzarekin. Momentuz, Alde Zaharrean eta Erdiguneko kokatutako ikastetxeetan hasiko dira lanean ikasturte honetan. Orixe, Amara Berri, Zuloaga Haur Eskola, Mariaren Lagundia, Santa Maria eta Belen dira ekimenean parte hartzeko izena eman duten eskolak.

Kanpainak hiru fase izango ditu eta horietan zehar material anitza jarriko du Galtzagorri parte-hartzaileen eskura, irakasle, guraso eta haurren eskura hain zuzen. Gainera, hainbat ekintza ere eskainiko ditu. Galtzagorriko kide den Itziar Zubizarreta idazleak azaldu zuenez, Bularretik Mintzora kanpainak, azkenean, hiru ardatz ditu: informazioa eta materiala eskaintzea, gurasoak formatzea haien seme-alabekin irakurtzen has daitezen eta, azkenik, irakasleei ere formazio espezifiko eskaintzea.

Materialari dagokionez, 30 maleta mailegagarri prestatu dituzte Donostiako Haur Liburutegi Nagusian. Bertan liburu hautatuak izango dituzte umeek etxera eraman ahal izateko. Gainera, ikastetxeetan ere motxilak banatuko dituzte eta astero ikasle batek joan beharko du liburutegira liburu bat utzi eta beste bat hartzera, eskolara eta etxera eramateko.

Izan ere, kanpaina gauzatzeko Donostiako Haur Liburutegi Nagusiaren kolaborazioa izan dute. Arantza Urkia udal liburutegi zerbitzuen zuzendariak Donostian 1994ean haurren artean irakurzaletasuna pizteko ekimenekin hasi zirela gogoratu zuen, lehen bebetekak zabalduz, ipuinen orduak antolatuz eta 30.000 ale dituen Haur Liburutegi Nagusia osatuz. Hala ere, Itxasoren ustez bide horretan aurrerapauso garrantzitsu bat suposatuko du Bularretik Mintzora kanpaina abian jartzeak.

Guraso eta irakasleei dagokienez, haiei zuzendutako material informatiboa ere prestatu du Galtzagorri, baita Bularretik Mintzora liburu-diskoa ere (liburutegietan dute eskuragarri maileguan uzteko). Formazio ikastaroak ere izango dira. Irakasleei zuzendutakoa Itziar Zubizarretak eskaintzen du irailetik eta maiatzera arte luzatuko da. Era berean, gurasoei zuzendutako Juan Cruz Igerabide eta Juan Carlos Alonsoren hitzaldiak izango dira martxoa eta apirilean, baita Pello Añorga ipuin kontalari eta idazleak zuzendutako ikastaroa ere, Haur txikiei nola kontatu izenburupean.

Liverpooletik eratorria. Literatura, lagungarri

Bularretik Mintzora egitasmoaren ideia originala ez dela azaldu zuen Zubizarretak. 1992.ean Ingalaterrako Liverpoolen abiatu zuten eta an-tzeko ekimenak ondoren hainbat herritan egin dituztela gaineratu zuen. Euskal Herriari dagokionez, Galtzagorrik 2007.ean sortu zuen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Haurrek jaiotzen direnetik modu egokian garatzeko hainbat behar dituztela konturatu ziren eta umearen ikasteko prozesu horretan literatura testuak lagungarri apartekoak direla diote. 'Helduok haurrei irakurketa eskaintzen diegun neurrian, hizkuntza eta emozioak garatzeko aukerak eskainiko dizkiegu', diote Galtzagorrikoek. Horregatik uste dute garrantzitsua dela lehenbailehen lanean aritzea haiekin irakurtzeko ohitura pizteko eta horregatik zuzendu diete egitasmoa sei urtetik beherako umeei.